

‘EMEN DATZA URBANO LANDA, ERRI ONTAKO AZKENEN
EUSKALDUNA. 1953’

...eta badoaz urtaroak / eta gu ere bagoaz / gero eta gutiago / gara ginenak / gero eta urrutiago / ginena / Zer geratuko da gerorako? / Leku izenak agian / ez besterik: Ursouia, Itchasou / Irouleguy, / Aussurucq eta Tchoko / Maitia... / Jendeak misterio aire batekin / ahoskatuko ditu leku izenok / jendeak misterio aire batekin / ahoskatuko ditu izenok.

EUSKARA JENDEA
Gure hizkuntzaren historia,
gure historiaren hizkuntza.

MUNDUA OSATZEN

Gerrek negu-mineko paisaia marraztu zuten Euskal Herrian XX. mendeko erdialdean.

Negualdi luzea; baita hizkuntzarentzat ere, bereziki Hegoaldean.

Franco diktadorearen erregimenak euskara itotzeko politika fermua ezarri zuen.

Isiltasunak eta beldurrak gogor lotu zuten egunez-eguneko bizitza.

Garai berean, bestalde, hedabide handiak sartzen hasi ziren etxe gehienetara pixkanaka-pixkanaka, irratia lehenago eta telebista geroago.

Erdarak toki zabalagoa hartu zuen euskararen kalterako, berezko elebakartasuna guztiz bazterreko bilakatu arte.

Hala ere, mintzairarekiko atxikimendua ez zen deuseztatu.

Hasieran isil-gordean eta hitz estaliz, berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan plazara agertu ziren berriro herriaren aldeko adierazpen batzuk: bertsoak, kanta, literatur lanak, antzezlanak...

Ezkutuan ere abiatu ziren, bide beretik, borroka politiko diferenteak.

Baina oztopoz-oztopo metatutako kontzientzia mailak hurrengo hamarkadan egin zuen gora indartsuki.

Ordurako, munduan, nonahi azaleratzen ari ziren kulturaren espresabide modernoak eta esperientzia artistiko berritzaileak, bai eta ekimen sozial eraldatzaileak ere.

Beste askok bezala, giro hartan ekin zion Jose Angel Irigaray idazle eta 'Ez Dok Amairu' taldeko kide ohiak sortzeari eta plazaratzeari.

Jose Angel Irigaray

Gerla ondoren bazirudien euskaldungoa iraungia zela. Hala ere, berrogeita hamarreko eta, batez ere, hirurogeiko hamarkadan, zokoratuta, menperatuta, ezabatuta zirudien hura berpizten hasi zen.

Irigaray

Alde batetik, euskara bera ere, oso etxeko zoko-mokoetan baztertua, plazara ateratzen hasi zen. Eta plazara ateratze horretan, batetik, hezkuntza garatu zen, ikastola erdi klandestinoak, baina, bestetik, arteari dagokion arloa bereziki. Eta hor, testuinguru horretan, kantagintza.

Musika, beharbada, munduan jotzen ari zen aldaizearen islarik eta bidegilerik naturalena zen.

Mixel Labeguerie kantautoreak hirurogeiko hamarkadaren hasieran hasi zuen bere ibilbidea. Bi diska txiki grabatu zituen, kanta politikoak eta pertsonalak jaso zituelarik.

Lapurtarrak jauzi kualitatiboa ekarri zuen kantagintzara: gizartearen kezkekin bat egin zuen plazan; munduko zurrunbiloan murgildu zen.

Irigaray

Handik aurrera euskal kantagintza ez zen derrigor ezereen kopia izan behar. Geu ere, geure mundutxotik, gure ondare hartan, gure gizartean, gure gorabeheretan maila pertsonaletik hasi... geu ere gai ginen geure kantagintza egiteko.

Labeguerie, 1965ean sortutako Ez Dok Amairu kultura-mugimendu abangoardistaren aitzindari bilakatu zen.

Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Artze anaiak eta taldeko beste partaideek musika tradizioari buruzko ideiak astindu zituzten.

Ez Dok Amairuk konprenitu zuen tradizioan ez zegoela bakarrik euskaldunek mendez mende garatutako ondare bat, baizik eta jarrera bat, estetika bat.

Eta, deblauki, ur haietan barneratu beharra zegoela ikusi zuen.

Irigaray

Tradizioari atxiki, batetik, baina ez tradiziokeria, folklorea edo etnografia egiteko, baizik eta gaurkotzeko, edateko eta hori guztia gaurko moldeetara ekartzeko. Eta, bestetik, garai hartako munduan kokatuak.

Taldeko lagunek kanta tradizionalak lantzen eta birsortzen zituzten, esperimentazioaren adarretatik irristatuz.

Irigaray

Oroitzen naiz kantaldietan, adibidez, kanta zahar baten ondoan, edo *'Gazte gara gazte eta ez gaude konforme'* edo *'Zenbat gara'* kanten ondoan, Vietnamgo Gerrari buruz edo Detroiteko beltzen aldeko *'Ez kanta beltza'*, momentu berean batere arazorik gabe. Orduan, hark munduan kokatzen gintuen, beste gainerako guztiakin bisean bis kokatzen gintuen eta, gainera, nik uste, kokatu behar gintuen moduan. Gure hizkuntzari, hiztungoari, nazioari zegokion moduan.

Gazte haien jarduerak gizarte oihartzun zabala bildu zuen.

Batzuentzat eskandalagarri suertatzen ziren beren manera modernoengatik eta, beste batzuentzat, susmagarri, gauzak ongi egitekotan profesionalizatu nahi zutelako.

Barne-trabak gutxi balira bezala, Espainiako gobernuaren zentsurak eta debekuek areago zaildu zuten taldearen dinamika.

Irigaray

Jendea ez da oroitzen baina askotan Benito Lertxundi urte pare bat egoten zen Bizkaian ezin kantatuz, edo Mikel Laboa, edo Julen Lekuona. Horrela ibiltzen ziren. Beste aldetik, haustura zen ber gure gizarteari begira ere. Askotan, bere moldeetan laketuak, batzuei kosta egiten zitzairen zenbait molde, guk estetikoki nola gauzatu nahi genituen ikuskizunak, *'Baga-Bigan'* adibidez.

Ez Dok Amairu 1972an desegin zen baina bide berriak finkaturik zeudenez, kantagintza oparo ugaldtu zen ondoko urteetan.

Irigaray

Hain zen indartsu era berean mugimendu guztia, ez bakarrik kantagintza, baita antzerkia ere, arte plastikoak, arkitektura, literatura... non esan baitaiteke, nik uste, garai hartan Euskal Herriaren kultur aitzindariak... benetan ildoa eta itzala zekarrena euskaldungoa zela. Euskaraz egiten zen produkzioa gehienbat, baita erdaldunen artean ere.

Zirimola bat irudi, Jorge Oteiza dugu garai hartako artistarik nabariena.

Erdalduna izan arren, haren lanek eta ideiek eragin izugarria izan zuten euskararen eta euskal kulturaren.

Irigaray

Herria oso akonplexatuta, menperatuta eta beldurtuta zegoen. Oteizak horren guztiaren kontrako antidotoak ekarri zituen, bai eta euskararen aldeko eragina arte munduan, kultur munduan, arte plastikoetan, antzerkian, dantzan, literaturan, hezkuntzan... Ostertz berriak, muga berriak ezarri zizkion euskararen lurraldeari. Sekulako aldaketa kualitatiboa ekarri zion euskal munduari, euskaldungoari.

Gizartean, politikan eta kulturaren ez ezik, hizkuntzaren corpusean, irakaskuntzan eta komunikabideetan ere izan ziren mugimendu handiak hirurogeiko hamarkadan, maiz kanpoko eragozpenei eta oztopoei iskintxo eginda, isilka eta gordeka.

Urte haietan jarri ziren gaur egun daukagun euskararen biziberritze partzial eta prekarioaren oinarriak, Jon Sarasua kultur gile eta irakasleak dioenez.

Jon Sarasua

Oso interesgarria da ikustea, gainera, oinarri haiek jarri zirela, Hegoaldean, frankismoan inolako erakunde babesik gabe, inolako publikotasunik gabe. Jarri ziren, batetik, corpuseko batasunaren eta estandarizazioaren oinarriak. Intuizio oinarritzko batzuk egon ziren oso ondo kokatuak.

Hamarkadaren amaieran, Euskaltzaindiaren aspaldiko ametsa, alegia, euskara estandar bat sortzea, betetzear zegoen.

Koldo Mitxelena, Txillardegia, Gabriel Aresti eta beste euskaltzale batzuek bultzaturik, 1968. urtean, hizkuntzalari eta idazle ugari bildu ziren Arantzazun euskararen batasunari irtenbide bat aurkitzeko asmotan.

Eztabaidak sutsuak izan ziren. Zenbaitetan azaleko gaiez aritu ziren (H hizkiaren gaineko afera, esaterako), baina azkenean Mitxelenak proposatutako eredia onartu zuten, nafar-gipuzkera ardatz zuena.

Sorreratik bertatik, batek baino gehiagok errezeloz hartu zuen euskara batua.

Hala ere, hizkuntza estandarrak bidea urratu zuen poliki, batik batik komunikabideetan eta ikastoletan.

Irakaskuntzan, 36ko Gerra bukatu eta gutxira zabaldu zen ikastolen hazia, klandestinitatean.

1944an, Elbira Zipitriak ezkutuko eskola ezarri zuen bere etxean. Berehala, beste irakasle batzuk ere abiatu ziren xendra hartatik.

Dena den, ikastolen eztanda hirurogeiko hamarraldian izan zen.

Soilik hamar urte geroago, ehundik gora ikastetxe sare bat osatzen hasiak ziren.

Sarasua

Gure gurasoen belaunaldiak ikastolak sortzeko izan zuen argitasunak txunditu egiten nau. Ez eskola elebidun bat, ez, euskara hegemoniko garbi bat izango zuen hezkuntza eredia sortu zuten hutsetik frankismoan. Nire ustez, transmisio sen hori izan da, beharbada, hona ekarri gaituen gako nagusia eta, beraz, irakaskuntzari lehentasun handia emango nioke.

Herri-ekimenak bultzaturik, bestalde, sare hura nekez gorpuztuko zatekeen erdaldun ugari esku hartu izan ez balute.

Irigaray

Ikastolen mugimendua ere ez daiteke erdaldunen parte hartzerik gabe ulertu. Erdaldun abertzaleak, euskaltzaleak, euskararen alde egin nahi zutenak. Gure hiri handietan gehiengo handi bat erdalduna izaki, euskararen alde egin zuten apustu, bai diru aldetik, bai denbora aldetik, bai energia aldetik hezkuntza euskaraz ere izan zedin gure herrian.

.....

1975ean Franco hil egin zen.

Luze gabe, erkidego bi eratu zituzten Hego Euskal Herrian: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, alde batetik, eta Nafarroa, bestetik.

Lehenengoan, Eusko Legebiltzarrak Euskararen Legea onartu zuen 1982an, hiztunak normal bizitzeko gutxienekoak ere betetzen ez dituen. Nafarroan, berriz, lege are murriztago bat ezarri zuten lau urte geroago.

Erdararen alde garbi egin arren, legeek euskara arlo publikora sartzea ahalbidetu zuten. Herabeki bada ere, euskara azaltzen hasi zen irakaskuntza publikoan, administrazioarekiko harremanetan eta hedabide publikoetan, Euskal Irrati-Telebista kasu.

Ipar Euskal Herrian, aldiz, inolako ofizialtasun-mailarik gabe, herritarren bizkar gelditzen zen dena.

Parisek gerotik gerora uzten zuen hizkuntzaren afera, euskararen erabilpena eta berezko transmisioa begi bistatik desagertzen ari zirela.

Amaia Aire irakasle eta abeslari urepeldarrak etxe batean baino gehiagotan ezagutu du eten den kate hori.

Amaia Aire

Etxean euskaraz mintzatu gara beti. Gure herrian txipitan gehienak mintzatzen ziren, bospasei urte arte. Bestalde, garai hartan ez zen ikastolarik. Denok eskola frantsesean ginen eta askok aski fite ohitura hartzen zuten frantsesegiteko, baita etxean ere. Guk, aldiz, etxean argi izan dugu euskaraz behar genuela hitz egin.

Aire

Geroago, nerabezaroan, gehiago kontzientziatu gara. Gure lagunek ez zekiten euskaraz edo partez galdua zuten, eta haiekin giro batera sartu gara. Zinez hautua izan da euskaraz egitea, zinez aitzina berriz berreskuratzeko eta lagunekin normaltasun batean gure harremana euskaraz izateko.

XX. mende amaierarako, luzaro ia aldatu gabe egondako komunitatearen mugak eta barne trinkotasuna aski hondoraturik zeuden Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoan, kontrako ahalegin guztiak zapuztuz neurri handian.

Aire

Lizeoan ginelarik, beraz hamabost, hamasei, hamazortzi urtera arte, eskola frantsesean ginen. Ohartzen ginen irakasleek nola ikusten gintuzten.

Aire

Sentitzen zen haiek euskara nola ikusten zuten. Ez zen sekula hitzetan formulatua izan baina bai izateko maneran. Ez zuten ulertzen gu tematzea euskaraz segitzen.

Aire

Hori biziki bortitza zen guretzat. Orduan, kontzientzia hartu genuen eta aitzina segitu genuen erranez gurea naturala zela, naturaltasunez hitz egiten genuela eta ez zela guretzat hein desberdinik bi hizkuntzen artean.

Aldeak alde, aurreko urteetan pilaturiko motibapenen eta egitasmoen emaria bideratu egin zen mendeko azken bi hamarkadetan, euskara normalizatzeko martxan ziren mugimenduak indartzuz: ikastolak, irakaskuntzan; aldizkariak, irratiak eta '*Euskaldunon Egunkaria*', komunikabideetan; euskaltegiak eta gau-eskolak euskalduntze eta alfabetatzean; Euskal Herrian Euskaraz, hizkuntzaren defentsan; bertsolaritzan; literaturan; musikan... gehienetan herri-ekimenari esker.

Sarasua

Bi gauza azpimarratu nahi ditut: alde batetik, hiztun komunitate moduan izan dugun nortasun sena eta, bestetik, herri honi, hiztun komunitate honi darion autoeraketa-sena. Nire ustez, autoantolatze, sareak sortzeko, sare horiek gutxi gorabehera modu horizontal batean kudeatzeko eta ditugun desfioei erantzun dieten erakunde txikiak sortzeko jenio bat, nerbio bat izan du gure hiztun komunitateak.

Izan ere, erakunde txiki horiek jarri diote azpiegitura euskararen ametsari eta berreskurapenari.

Sarasua

Azterketa unibertsal bat eginda, XX. mendean oso herri gutxi daude eta, beharbada, maila honetan bat ere ez, horrelako hizkuntza berreskurapen bat oinarritu dutenak ez erakunde publikoetan, baizik eta herri ekimenean. Beraz, uste dut hori datu inportantea dela zer izan garen eta zer garen ulertzeko.

Eguneroko bizitzan eragiteko asmoz, euskara elkarteak sortu ziren herri eta hiri askotan.

Talde hauek, halaber, mintzaira normalizatzeko politika sendo baten hutsunea ere bete nahi zuten.

Arrasate Euskaldun Dezagun, Geu Gasteiz edo Ttipi-Ttapa bezalako elkarten jarduerari zor diogu, hein handi batean, herri prentsa. Hasiera batean euskara hutsezko aldizkariak eta irratiak bidez hedatu zuten tokiko informazioa eta, geroago, zenbait kasutan, telebistaz ere bai.

Bestalde, elkarteetatik kanpoko herri-ekimenik ere izan zen tokiko komunikabideak abiatzeko orduan, hala nola Irulegiko irratiak, Xiberoko Botza edo Euskalerrria irratiak.

Mende bukaerako dinamika hartan, hizkuntza eta kultura esparru berrietara eramateaz gain, tradizioa gaurkotzea ere bazen eginkizun.

Musika eta beste disziplina batzuek gain, bertsolaritza da horren adibide nabaria.

Belaunaldi batek bertsolaritza berria amestu zuen.

Sarasua

Amestu zuen, momentu hartan funtzionatzen zuen zirkuitu rural eta urbano batetik haratago, bertsolaritza masa-kultura batean bezala funtzionatzen; bertsolaritza eskoletan belaunaldi berri bati transmititzen sistematikoki; amestu genuen bertsolaritza telebistan, garai hartako medio berrietan; amestu genuen bertsolaritzaren formatu berriak eta, baita ere, nolabait, masa-fenomeno moduan bere indarra izango zuen kultur bide moduan.

Kultur arloan bertsolaritzak errepresentatu izan du tradizioa hobekien. Zentzu horretan, biziki interesgarria da azken urteetako bilakaera.

Sarasua

Batetik, bere burua autoantolatzea lortu duelako; ekosistema moduan antolatzea lortu duelako; beharbada, jarraiduraren eta irekiduraren, hau da, tradizioaren eta sorkuntzaren arteko nahasketa propio, alai eta jolasti bat egiten asmatu duelako, nolabait eraginkorra izanez bere estrategietan.

Tradizioa eta modernitatea. Jarraidura eta irekidura. Bat egite horretan ezin hobekiago asmatzen jakin dute bertsozaleek.

Sarasua

Lizardik esaten zuen «*baina nik, hizkuntza larreakoa, nahi haunat ere noranahikoa*». Bertsolaritzarekin halako zerbait egin du azken hogeita hamar urteotako belaunaldiak: tradizio bat hartu, baina tradizioa ez ulertu iraunarazi behar genuen zerbait moduan bakarrik. Hau da, ez zen irauteko, baizik eta sortzeko, bizitzeko. Eta zentzu horretan iruditzen zait jarraidura horren, tradizio horren sorkuntza modu propio batean kudeatu duela.

Jarraidura-irekidura bikotea, noski, hizkuntzara ere ekar dezakegu.

Sarasua

Jarraidura da, azkenean, jaso duguna hartzea, hortik bizitzea, hori garatzea eta hori hurrengo belaunaldiari transmititzeko sen hori.

Sarasua

Bestetik, irekidura. Zer da? Irekidura da garaiak, konkistak, egoera politiko-ekonomiko-kulturalak dakarkizunari zabalik egotea, digeritzea, ikasten jarraitzea, hartzea eta ez ixtea. Eta, nolabait, jarraiduraren eta irekiduraren arteko dialektika... oreka dinamiko bat da azken batean euskararen historian ikusten duguna. Arlo guztietan. Corpusean bertan. Zer da gure hitzen corpusa? Jarraidura hutsa eta irekidura hutsa. Euskara ez da aspalditik datorren esentzia bat. Euskara, hain zuzen ere, ibili izanaren, existentziaren ondorio bat da. Euskararen fluxu horretan nahasturik dator dena.

Irigaray

Hizkuntzaz ari garenez, geure gizartea ardazten duen hizkuntza eguneratzen, sorkuntzazko lurraldeetan, gaurko munduan txertatzen ahalegindu behar dugu. Orain arte hala izan da. Euskaldunak gai izan dira, bermatu dira, saiatu dira eta lortu dute. Eta nik uste dut gaur eguneko erronka nagusia hori dela...

Irigaray

...dialektika hori, jakitea zertan izan behar dugun fermu, sendo eta muinari atxikiak eta zertan malgu, irekiak, zabal... hor datzalako bizitzaren dialektika.

Aire

Beti erraten da gurea dela hizkuntza bat mendeetan pasatu dena. Ez dut uste gure axola denik hori: modernitatea edo ez modernitatea, hainbeste aspalditik hor gira, nola erran. Sentitzen duguna egin behar dugu. Sentitzen baldin badugu kantu herrikoi batean bateria sartzea eta gitarra elektrikoa sartzea, egin behar da.

.....

Nahiz eta, oro har, erabilera pattal ibili eta, hainbat lekutan, ezagutzak artean atzerantz egin, XX. mendearen bukaeran, aspaldi galduak zituen zenbait lurraldetara zabaldu zen euskara, hala nola Nafarroako Erriberara edo Arabako Errioxara.

Halaber, hizkuntza hiritartu ere egin zen eta, bide batez, bere balioari buruzko garai bateko zalantzak oro uxatu zituen.

Egun, XXI. mendearen hasieran, inoizko euskaldun kopururik handiena bizi da hirietan.

Eta ez hori bakarrik: euskaldun gehienak hirietan eta herri handietan bizi dira.

Baina hortik harago, mende berrian ustekabez, euskarak eszenatoki zeharo aldatu batean ikusi du bere burua, munduko hizkuntza guztiek bezala, bestalde.

Sarasua

Egia da XXI. mendearen eszenarioa berria dela. Lehen aldiz, inoiz baino eragin eta olde zabalagoetan biziko gara, teknologia berrien eraginpean. Gure seme-alabentzat hautu bat izango da euskaraz bizitzea, eguneroko hautu bat, askoz eskaintza, olde, itsaso zabal, interesgarri eta aberatsago horien barruan. Baina ez jadanik eskaintza zabal eta hizkuntza handiagoak eta interesgarriagoak alboan edo gainean, baizik eta barruan, etxeko salan, norberaren pentsamenduaren baitan.

Gaur egun hizkuntzen eta kulturen arteko jokalekua mundu digitalean ere badago.

Eta hor, euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, erronka eta galdera berriak

Iratxe Esnaolak eta Hiromi Yoshida-k ezin hobeto ezagutzen dute jokaleku hori.

Eremu digitalak zabalduko komunikazio-aukera anitzek elkartu ditu Zarauzko informatika ingeniaria eta Tokioko Waseda Unibertsitateko euskara irakaslea.

Iratxe aspaldi dabil Internetek euskarari ezarritako beharrei bideak zabaltzen eta aukerak bilatzen.

Software librearen erabilizale, '*Puntueus*' bezalako ekimenen bidez aztertu eta definitu ditu Euskal Herriaren erronkak.

Esnaola

Argi izan behar dugu mundu digitalak bere horretan ez duela miraririk ekarriko. Mundu digitalean parte hartzeagatik ez da euskararen egoera aldatuko. Oso nabarmena da klean ematen den egoera berbera eramaten dugula mundu digitalera eta, beraz, mundu fisikoaren isla bat dela mundu birtuala deitzen dugun hori.

Esnaola

Euskaldunon hizkuntza-komunitatea Interneten ere, maila batean, mundu fisikoaren isla da. Argi dugu denok euskararekiko komunitatea konprometitu eta aktiboa dela, garaian garaiko erronketara egokitu dela, eta horren adibide bat gehiago besterik ez da mundu digitala. Ikusi besterik ez dago Wikipediak bere hasieratik eduki duen bilakaera; zenbat blog sortu diren euskaraz gai ezberdinen inguruan; Interneten bertan ematen diren edukien eta zerbitzuen lokalizazioan, alegia, euskaratzen edo itzulpen horretan, dagoen gelditu gabeko bilakaera hori.

Esnaola

Euskarazko edukien eta zerbitzuen sorkuntza hasieratik izan da mundu digitaleko kezka bat. Bai administrazioak, bai talde ezberdinek, bai euskalgintzak berak ere eduki dute bere kezka juxtu horretan: Internet, teknologia soila izatetik zerbait baliagarria izango den tresna bilakatzerara. Oso garrantzitsua da euskarazko edukien eta zerbitzuen sorkuntza, mundu fisikoaren isla dela ideia horri helduta.

Esnaola

Gure bizitzak beste eremu bat du. Beraz, hizkuntza hedatu behar da gure bizitzako eremu guztietara eta, are gehiago, eremu hori gure egunerokotasunaren parte handi bilakatu delako urte gutxitan. Beraz, lehenastetik harago uste dut badela garaia modu natural batean eremu teknologikoa gure egiteko, gure egunerokotasunean egiten dugun moduan.

Esnaola

Bada ikerlaririk esaten duenik euskarak iraungo badu eta eremu urriko hizkuntzek iraungo badute, teknologia elektronikoa erabiltzen dutelako izango dela. Alegia, teknologia elektronikoa erabiltzen ez bada, hizkuntza batek ez duela iraungo. Nire ustez, ikusteke dago hori egia den edo ez, baina denok dakigu hemendik aurrera hizkuntza baten garapena mundu teknologikoari ere eskutik helduta joango dela.

Esnaola

Euskarak behar du inoren menpe egon behar ez izatea. Alegia, bere erritmo propioa du; bere hizkuntza-komunitatea du; bere hizkuntza-komunitate horrek bere konpromisoa du hizkuntzarekin; eta baliabideak behar ditu besterik gabe konpromiso

horri erantzun ahal izateko. Eta hori da, hain juxtu, Internetek ezerk ez bezala eskaintzen duen aukera. Beraz, nire ustez, ez euskararen iraupena jada bermatuko duelako, baizik eta delako gune bat orain arte aurrez inoiz izan ez duguna, baina beste eremu guztiek baino baliabide gehiago eskaintzen dituena euskarak aurrera egin dezan eta hedatu dadin berak nahi duen erritmoan eta moduan. Beraz, oso garrantzitsua izango da.

.....

XXI. mendearen hasieran, euskara izugarri zabaldu da mundu digitalean, hala informazioari nola produkzio sinbolikoari dagokionez.

Interneti esker, hiztun komunitateak mundu fisikoaren mugak gainditu ahal izan ditu.

Baina esparru horretatik kanpo ere, duela gutxi arte pentsa ezinak ziren aurrerapenak lortu dira alor askotan.

Azken bost hamarkadetan, euskalduntze prozesuak jauzi handia eman du maila kuantitatiboan: milaka ikasle berri euskaldundu dira, ehunka liburu eta diska plazaratu...

Maila kualitatiboan, ordea, egiazko emaitza iraunkorren falta sumatu da, hiztunen motibapenean eragindako ondorioak begi bistakoak direlarik.

Sarasua

Askotan euskalduntze prozesu hori, bai haurretan bai helduetan, oso kuantitatiboa izan da, baina kualitatiboki huts egiten hasi da, besteak beste ez dugulako lortzen gero belaunaldi horiek euskaldun izateko borondatea ekoiztea bere baitan, eta horrek dituelako hutsuneak bai motibazioan baina baita hizkuntzaren potentzian bertan ere, hizkuntzaren kalitatean.

Inoizko hiztun kopururik handiena izateak, beraz, ez du esan nahi hizkuntza komunitatea ondo dagoenik.

Sarasua

Ikuspuntu mediku batetik gaixorik gaude, ez gaude ondo. Hiztun komunitate hau gaixorik dago eta gaixotasuna serioa da.

Sarasua

Zer ikusi nahi dugu, botila erdi betea ala erdi hutsa? Nire ustez, ez da hori galdera. Ez da hori galdera, batetik, botila zulatuta dagoelako. Orduan, botila erdi hutsa ikusteak ez delako nahiko, baizik eta betetze erritmo batetik gora botila hustutzen ari delako. Bestetik, aldarte hautua dago. Baina nire aldarte hautua izango litzateke oinarritu nadin egun dugunaren poz horretan, asko eta ikaragarria baita egin den ahalegina, bai eta emaitzaren parte bat ere. Eta harrotasun horretatik sortu nadin ditugun desafioentzako energia sortzen, jakinik ere desafioak handiak direla.

Gaurregun euskaldun guztiak dira elebidun maila desorekatu desberdinetan eta euskararekiko atxikimendua, bestalde, lausoago bilakatu da.

Baina atxikimendua indartsua delarik ere, hiztunak traba baino ez du topatzen egunero.

Aire

Naturalki egiten dut euskaraz hurrekin. Ene harremana ez liteke posible ez banu euskaraz eginen hurrekin. Ez dut beste hizkuntza batean ber afektibitate maila emaiten ahal. Nire haurrendako dudan maitasuna ez dut transmititzen ahal frantsesez.

Aire

Batzuetan frantses batzuek gaizki hartzen dute hori. Orduan esplikatzan diet hori dela sentsibilitate istorio bat eta hori behar dutela ulertu, eta beharbada ez dute ulertzen zeren eta ez dira sekulan izan pareko egoera batean.

Euskara, espainola eta frantsesa ez daude maila berean, ezta hizkuntzaren pertzepzioari dagokioenean ere:

Erdal elebakartasuna onartua eta, are, legez babestua da; euskal elebakartasuna, ordea, kaltea omen litzateke hiztunarentzat berarentzat.

Aire

Hizkuntza batek, aldiz, bere munduaren ikusteko kolorea dakar. Beste hizkuntza batean ari zarelarik beste irudi batzuekin mintzo zara. Eta, orduan, ez dituzu ber gauzak erraiten ahal ber pertsonari hizkuntza batean eta bestean.

Egun sarritan entzuten dugu gure gizartea elebiduna dela, hau da, euskara eta auzo-erdarak bake ederrean bizi direla.

Baina elebitasun hitzaren azpian desoreka aurkitu ohi da euskararen kaltetan.

Aire

Idea hori hemen, Iparraldean ere sortu da euskararen eta frantsesaren artean, baina hala eta guztiz ere ohartzen gara errealki ez direla sekula bi hizkuntza ber heinean ezartzen. Egiatzko hizkuntza politika bat galdegiten zaiolarik frantses gobernamentuari, hori ukatua izaten da. Eta, dudarik gabe, ukatzen zaio arau baten edukitzea. Ezinezkoa da orainokoa Frantzian. Oraino Frantses Iraultzaren ideiekin dira, erran nahi baita Frantziak behar duela hizkuntza bakar bat eta hori oraindik errealitatean da gaur egun.

.....

Pausoz pauso atzeraka ibilita, aurrera heldu gara oharkabeen.

Hizkuntzen artean ahaiderik ez omen duen mintzairak bizirik iraun du Europako pasabidea den lurralde honetan.

Bizirik gorde du kosta ahala kosta hiztun komunitate txikiak.

Izan ere, euskara funtsezkoa zaio izateko.

Sarasua

Nire ustez, euskaldun hitzak autopertzepzio bat du bere baitan. Horrela erabili izan da historikoki eta guri ere hala transmititu zaigu: euskaldun, euskaradun... Azkenean, hor ikusi behar dugu komunitateak sortzeko irizpide ezberdinak daudela. Komunitatea da zerbait komun konpartitzea: izan liteke lurralde bat, lurralde beretsuan bizi gara; izan liteke sinismen bat; izan liteke gustu bat; izan liteke hizkuntza bat. Eta hizkuntza bat da, seguru aski, konpartitzen dugun gauza intimoenetako bat. Lurraldea bera baino ere sakonagoa eta intimoagoa.

Menderik mende hizkuntza izan da komunitateak bere burua definitzeko hartu duen irizpidea.

Mintzoa.

Hau garbi izanik, komunitateak beste maila batera eraman du barne-kohesioa, barne-lotura.

Sarasua

Euskaldun hitzaren perspektiba zera da: kultura komunitate moduan garena fluxu baten ondorioa da eta komunitate hori da euskaldun moduan definitzen gaituena. Horri euskararen herria dei diezaiokegu, euskararen nazioa... Nazio, herri, komunitate, hiztun-komunitate...

Irigaray

Zergatik? Nahikotasun mailako muina bizirik dagoelako eta oraindik ere gure Euskal Herria ardazten duen elementua euskara eta euskaldungoa delako. Eta menderen mendetan erran behar dugu euskaldungoa gai izan dela hori mantentzeko. Hain zuzen ere, geu gara froga, bizi garelako oraindik ere.

Gaur egun, baina, Euskal Herrian euskaldun izatea borondatezko aukera pertsonala baizik ez da, bizitzako alor guztiak legez ezagutu beharreko erdaretan eskaintzen zaizkigun bitartean.

Honek kolokan jarri du milaka urtetan barna herriak erakutsi duena: izateko nahia eta grina, euskaradun irautea alegia.

Irigaray

Hizkuntza, hiztunagoa, nazio guztiek bere duten ahalmena, bere duten ekosistema, bizitzeko behar duten ekosistema... Hori ez bada segurtatzen (eta ekosistema deitu, ahalmena deitu, edo boterea deitu, edo bere gain izatea), hori ez bada nahikotasun-mailan mantentzen, biodibertsitate kulturala eta mundu oparo hori endekatuko da, galduko da.

Irigaray

Eta hori, guri bezainbat, beste edozein herriri, nazio edo hizkuntzari dagokio. Orduan, hor politika arloan sartzen gara baina hor ere jakin behar dugu integratzen eta,

era berean, jakin behar dugu zein den oso meharra den bide hori, estrategikoa, eta geuri dagokigun boterearen alde egitea, aldez eta moldez baino gehiago zinez, zinez!

Historian barneratuz, XXI. mendera arte ekarri gaituen gakoa aurrera egiteko ber-bera da.

Atzeak erakutsi du aurrea nola dantzatu.

Sarasua

Zergatik eta nola asmatu du gure hiztun kate aski txiki baina oso luze honek horrelako liseriketa etengabe hau egiten eta hainbeste irauten? Enigma hutsa da. Enigma honen erantzunetako bat hauxe da: asmatu egin dute jarraidura eta irekidura nahasten eta transmisio sen hori mantentzen. Nola? Zein ibilbideren bidez? Ez dakigu. Azken mendeetan badakigu zer egin dugun, eta nik uste dut XX. mendean egin dugunak ere pista batzuk eman ditzakeela aurrekoaz.

ETSAIN irudiak. Herriko lau haurrak euskaraz 60 urte geroago. Amaiera

Irigaray

Biziko bagara... atakan dagoena ez baita gugandik kanpo dagoen deus, hizkuntza aipatzen dugunean geu gara, beraz atakan dagoena geure izaera bera da eta, orduan, zinez hori nahi baldin badugu aurrera atera hor bermatu behar dugu, hor erakutsi behar dugu, euskaldungoak menderen mendetan erakutsi duen bezala, nor garen.

Historiaren gurpilean biraka, euskarak badu makina bat istorio kontatzeko.

Makina bat gertakizun.

Baina badu, batez ere, berreskurapen historia argigarri bat partekatzeko.

Sarasua

Azkenean, euskara da giza esperientziara sartzeko gure atea baina, aldi berean, leihoa ere bada beste hizkuntza minorizatu askoren paisaiarekin lotzen gaituena. Eta euskararen desafioa ez da euskararena bakarrik, munduko hizkuntzen berdintasunaren paradigma baten desafioa ere bada.

Desafioa, jakina, gogorra, zaila eta samina bezain pozgarria eta osagarritzkoa da.

Aire

Ez dugu hauturik, ez dugu besterik egiten ahal. Gu, nola erran, euskaldunak gara, euskara da gure ama hizkuntza, edo guk barnetik sentitzen dugun hizkuntza. Nahiz eta samintasun hori sentitu, segitu behar dugu, bestenaz gu garena galtzen dugu.

Aire

Beraz ez da, nahi baduzu, hautu ideologiko bat ere. Lehen planoan ez da hautu ideologiko bat ere, lehen planoan da naturaltasunez gure hizkuntza dela eta, nahiz eta samintasun hori sentitu, aitzina segitu behar dugula.

Samintasun bera kantatu zuen Amaiaren aitatxi zen Xalbador bertsolariak
'Nigarra begian' bertso-sortan.

Aire

...Horrela kantatzen zuen eta oraindik kantatzen ahal da gaur egun ere, erraten duelarik: «*Zortearen indarrez munduan ni ere / sartu nintzen euskaldun agerien jabe. / Frantses edo espainol sortu banintz hobe, / gaur ez nuen izanen hoinbertze nahigabe*». Beraz, ardura egoera anitzetan gertatzen zait horrela pentsatzea, sinpleago izan ahal litekeela gure egoera ez bagina euskaldun baina euskaldunak gara, eta horrek gaitu betetzen, horrek gaitu osatzen eta horrek gaitu aitzina eramaten ere, beraz aitzina goazela ageri da. Eta nahiz eta 'Nigarra begian' deitzen den bertso sorta hau nigarra begian izanagatik, aitzina irria ere behar dugu ezpainetan eta euskara mintzatzeko gurekin eta, beraz, bide horretatik aitzina goaz.

FINI

Dokumental sorta hau zuri, euskaldun horri, eskainia da. Mendetako belaunaldien kate-begi zaren horrek Euskara Jendearen historia luzea eten ez dadin egiten duzunagatik, zure kulturagatik alegia, eta gizateria osoaren ondarea zaintzeagatik, esker onez.